

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. HOTELAK ETA LANDETXEAK.
2020KO ABENDUA

2020an, oro har, % 60tik gora jaitsi dira Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak eta horietan igarotako gauak

2020ko abenduko egun guztietan hotel-establezimenduen % 41,1 itxita egon da.

2020. urtea COVID19aren ondoriozko osasun-krisiak goitik behera markatutako urtea izan da, eta, Eustatek prestatu dituen datuen arabera, % 61,1 jaitsi dira Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak eta % 61,5 horietan igarotako gauak. **2020an, 2019an baino 1.946.804 sarrera eta 3.855.902 ostatu-gau gutxiago izan dira.**

Martxotik aurrera mugikortasunerako erabakitako murrizketek oso eragin handia izan dute hiru lurralde historikoetan. Araban, 2020an, oro har, sarrerek % 58,6 egin dute behera, eta ostatueta igarotako gauek, berriz, % 57,1. Gipuzkoan, 2019. urtearekin alderatuta, beherakadak % 56,9koak izan dira sarreraren kasuan, eta % 59,7koak ostatueta igarotako gauetan. Azkenik, Bizkaian are nabarmenagoak izan dira jaitsierak, bai sarreraren kasuan (% 65,3), bai ostatueta igarotako gauen kasuan (% 64,4).

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaualdiak eta batez besteko egonaldia. 2020

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia	
	2020	2020/2019 (%)	2020	2020/2019 (%)	2020	2019
EUSKAL AE	1.238.100	-61,1	2.409.708	-61,5	1,95	1,97
Estatukoak	876.196	-52,3	1.725.836	-51,8	1,97	1,95
Atzeritarrak	361.904	-73,1	683.872	-74,5	1,89	1,99
ARABA/ÁLAVA	172.340	-58,6	338.444	-57,1	1,96	1,89
Estatukoak	138.071	-53,4	275.067	-51,5	1,99	1,92
Atzeritarrak	34.269	-71,5	63.377	-71,3	1,85	1,84
Vitoria-Gasteiz	121.494	-59,0	251.531	57,2	2,07	1,98
BIZKAIA	527.100	-65,3	1.046.347	-64,4	1,99	1,93
Estatukoak	388.690	-56,3	770.992	-54,5	1,98	1,91
Atzeritarrak	138.410	-78,0	275.355	-77,8	1,99	1,97
Bilbao	349.737	-64,8	656.679	-65,5	1,88	1,92
GIPUZKOA	538.660	-56,9	1.024.917	-59,7	1,90	2,03
Estatukoak	349.435	-46,5	679.777	-48,5	1,95	2,02
Atzeritarrak	189.225	-68,3	345.140	-71,7	1,82	2,04
Donostia-San Sebastián	317.195	-57,2	594.511	-61,0	1,87	2,06

p.p.*= aurreko urtearekiko ehuneko-puntu aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Atzeritik datozenek ostatueta igaro dituzten gauak eta beraien sarrerak izan dira beherakada handiena izan dutenak 2020an zehar, sarrerak % 73,1 jaitsi baitira 2019koekin alderatuta, eta ostatueta igarotako gauak % 74,5. Atzerriko turismoaren beherakadak Bizkaian izan du eragin handiena; izan ere, sarrerak % 78,0 murriztu dira eta ostatueta igarotako gauak % 77,8.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2020

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)		RevPar (eurotan)	
	2020	p.p.*	2020	p.p.*	2020	p/p-1 (%)	2020	p/p-1 (%)
EUSKAL AE	32,8	-24,6	41,0	-27,4	72,62	-22,3	29,79	-53,4
ARABA/ÁLAVA	31,9	-19,7	41,9	-21,8	60,13	-17,0	25,17	-45,4
Vitoria-Gasteiz	32,5	-20,9	44,8	-23,3	54,36	-17,3	24,34	-45,6
BIZKAIA	30,5	-26,1	39,6	-29,1	66,00	-23,1	26,11	-55,7
Bilbao	31,4	-30,3	39,8	-34,7	69,52	-27,5	27,63	-61,3
GIPUZKOA	35,8	-24,6	42,5	-27,3	84,55	-22,9	35,91	-53,1
Donostia / San Sebastián	38,7	-28,7	43,8	-32,4	100,95	-27,9	44,23	-58,5

p/p-1 Tasa de variación interanual en el último periodo observado (p) respecto al mismo periodo del año anterior (p-1)

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2020an eskainitako plazen arabera okupazio-mailak ehuneko 24,6 puntu egin du behera 2019. urtearekin alderatuta, eta eskainitako gela kopuruen arabera kalkulata, 27,4 puntu. Horrela, plaza bakoitzari dagokion okupazio-maila % 32,8koa izan da, eta gela bakoitzari dagokiona, berriz, % 41,0koa. Araban, plazen okupazio-mailaren jaitsiera 19,7 puntukoa izan da ehunekotan, eta eskainitako gelen kasuan, berriz, 21,8 puntukoa. Bizkaian, beherakadak ehuneko 26,1 eta 29,1 puntukoak izan dira, hurrenez hurren, eta, azkenik, Gipuzkoaren kasuan, eskainitako plazen okupazio-maila ehuneko 24,6 puntu jaitsi da, eta gelen okupazioarena, berriz, 27,3 puntu.

Sektorearen errentagarritasun-adierazleei dagokienez, Euskal AEko hoteletako eguneko batez besteko tarifa 72,62 eurokoa izan da 2020an, 2019an baino % 22,3 merkeagoa. Batez besteko tarifa 60,13 eurora iritsi da Araban, % 17,0ko jaitsierarekin, 66,00 eurora Bizkaian, % 23,1eko jaitsierarekin eta 84,55 eurora Gipuzkoan, % 22,9ko beherakadaren ondorioz.

Azkenik, hotel-establezimenduen okupazio-mailaren araberaokak diren logela erabilgarriaren diru-sarrerak (RevPar), 29,79 eurokoak izan ziren 2020an Euskal AEn, 2019an baino % 53,4 gutxiago. Araban, RevPar izenekoak 25,17 eurokoa izan da, 26,11 eurokoa Bizkaian eta 25,91 eurokoa Gipuzkoan; beraz, RevPar hori % 45,4, % 55,7 eta % 53,1 murriztu da, hurrenez hurren, lurralde bakoitzean.

2020. urtea, hotel-establezimenduen % 41,1 erabat itxita amaitu da. 2019ko abenduan, establezimenduen % 12,2 egon ziren itxita. Beraz, udako hilabeteetatik aurrera hauteman den joera negatiboak berdin jarraitzen du, abenduan ekainean erregistratutako itxiera kopurua (% 39,8) gaindituz.

Itxita mantendu diren hotel-establezimenduak (%). COVID19 aldia

	EUSKAL A.E.		ARABA/ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019
Abendua	41,1	12,2	36,0	13,3	38,4	11,5	44,4	12,5
Azaroa	38,4	10,6	36,0	9,3	34,3	10,7	42,2	10,8
Urria	20,2	6,3	29,3	9,3	20,4	5,1	17,9	6,6
Iraila	15,5	4,9	28,0	9,3	16,5	4,7	11,7	3,9
Abuztua	14,2	5,1	26,7	9,3	14,0	4,3	11,3	4,6
Uztaila	17,6	5,4	26,7	9,3	18,3	4,7	14,9	4,9
Ekaina	39,8	5,9	38,7	9,3	40,0	5,6	39,9	5,2
Maiatza	69,6	6,7	73,3	12,0	66,1	4,7	71,3	6,9
Apirila	91,0	5,7	92,0	13,3	87,7	3,5	93,2	5,6
Martxoa	14,1	10,5	17,3	14,7	12,7	8,7	14,3	10,8

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Lurralde historikoen arabera, 2020. urteko azken hilabeteen Araban establezimenduen % 36,0 egon da itxita, Bizkaian % 38,4ak ez du inolako jarduerarik izan eta Gipuzkoan abendu osoan hotel-establezimenduen % 44,4 erabat itxita egon da.

Hotel-establezimenduak: 2020ko abendua

2020ko abenduan, bidaiarien 56.534 sarrera izan dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, hau da, 2019ko abenduan baino % 72,9 gutxiago. Urte arteko jaitsiera % 70,6koa izan da Araban, % 73,0koa Bizkaian eta % 73,7koa Gipuzkoan.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia. 2020ko Abendua

	Sarrerak		Gualdiak		Batez besteko egonaldia	
	2020/12	m/m-12 (%)	2020/12	m/m-12 (%)	2020/12	2019/12
EUSKAL AE	56.534	-72,9	99.388	-74,1	1,76	1,84
Estatukoak	46.340	-68,7	81.073	-70,3	1,75	1,84
Atzeritarrak	10.194	-83,2	18.315	-83,5	1,80	1,83
ARABA/ÁLAVA	8.468	-70,6	17.141	-68,0	2,02	1,86
Estatukoak	6.755	-72,1	14.065	-68,8	2,08	1,86
Atzeritarrak	1.713	-63,1	3.076	-63,4	1,80	1,81
Vitoria-Gasteiz	7.552	-65,9	15.422	-63,4	2,04	1,90
BIZKAIA	28.229	-73,0	49.317	-74,3	1,75	1,83
Estatukoak	25.170	-66,8	42.814	-68,8	1,70	1,81
Atzeritarrak	3.059	-89,4	6.503	-88,1	2,13	1,89
Bilbao	20.478	-71,9	32.713	-75,5	1,60	1,83
GIPUZKOA	19.837	-73,7	32.930	-76,3	1,66	1,84
Estatukoak	14.415	-70,0	24.194	-73,3	1,68	1,88
Atzeritarrak	5.422	-80,1	8.736	-81,9	1,61	1,77
Donostia / San Sebastián	11.819	-75,8	18.144	-79,4	1,54	1,81

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Ostatuetan 99.388 gau igaro dira, hau da, % 74,1eko beherakada ikusi da Euskal AE osoan. Lurralde historikoen arabera, beherakada % 68,0koa izan da Araban, % 74,3koa Bizkaian eta % 76,3koa Gipuzkoan.

Nabarmentzekoa da, batez ere, atzeritik etorritako bidaiarien sarreretan eta ostatuetan igaro dituzten gauetan hauteman den beherakada, % 83,2koa izan baita sarreren kasuan eta % 83,5ekoa ostatuetan igarotako gauetan. Beherakada nabarmenena Bizkaian izan da, % 90 ingurukoa kasu bietan.

2020ko abenduan, batez besteko egonaldia 1,76 egunekoa izan da, 2019ko abenduan ikusitako batez besteko 1,84 eguneko egonaldia baino zertxobait txikiagoa. Araban, 2019ko abenduko 1,86 egunetatik aurtengo abenduko 2,02 egunetara igo da; Bizkaian, batez besteko egonaldia 2019ko abenduko 1,83 egunetatik 2020ko abenduko 1,75 egunetara murriztu da; Gipuzkoan ere murriztu egin da, 2019ko abenduko 1,84 egunetatik joan den abenduko 1,66 egunetara.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2020ko Abendua

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)		RevPar (eurotan)	
	2020/12	p.p.*	2020/12	p.p.*	2020/12	m/m-12 (%)	2020/12	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	15,7	-28,5	21,4	-30,8	62,3	-18,9	13,3	-66,7
ARABA/ÁLAVA	17,9	-24,8	26,2	-26,1	57,5	-11,3	15,0	-55,6
Vitoria-Gasteiz	20,1	-25,3	29,7	-27,6	57,7	-2,6	17,1	-49,5
BIZKAIA	15,8	-28,5	21,5	-31,5	59,8	-20,0	12,8	-67,6
Bilbao	16,6	-33,1	22,0	-36,4	62,1	-23,0	13,7	-71,0
GIPUZKOA	14,5	-29,9	19,3	-31,7	68,9	-18,6	13,3	-69,2
Donostia / San Sebastián	15,2	-34,8	19,7	-35,9	81,5	-19,4	16,0	-71,5

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Plazen araberako okupazio-mailari dagokionez, 2020ko abenduan % 28,5 murriztu da aurreko urteko abenduarekin alderatuta, eta % 15,7an geratu da Euskal AE osoan. Jaitsiera orokorra izan da: % 24,8 egin du behera Araban, % 28,5 Bizkaian eta % 29,9 Gipuzkoan. Hiriburuei dagokienez, Bilbo eta Donostia nabarmentzen dira, eskainitako plazen okupazio-maila % 33,1 eta % 34,8 jaitsi baita, hurrenez hurren. Gelaren araberako okupazio-mailak antzeko emaitzak ematen ditu.

Landetxeen 2020ko balantzea: sarrerak % 59,2 jaitsi dira eta ostatuetan igarotako gauek % 52,4 egin dute behera aurreko urtearekin alderatuta

2020an, guztira 68.184 bidaiari sartu dira Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan eta landetxeetan, hau da, 2019. urtean baino % 59,2 gutxiago. Horrenbestez, 2020an ostatuetan igarotako 205.389 gauak aurreko urtekoak baino % 52,4 gutxiago izan dira. Nabarmentzekoak dira atzeritik etorritakoek ostatuetan igaro dituzten gauen eta sarreren beherakadak, 2020an 2019an baino % 81,8 eta % 77,9 gutxiago izan baitira.

Euskal AEko landetxeetako sarrerak, gaudiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak. 2020

	Sarrerak		Gaudiak		Batez besteko egonaldia		Betetze mailak (%)			
	2020	2020/2019 (%)	2020	2020/2019 (%)	2020	2019	Plazaka		Logelaka	
							2020	p.p.*	2020	p.p.*
EUSKAL AE	68.184	-59,2	205.389	-52,4	3,01	2,58	18,4	-10,2	22,6	-9,5
Estatukoak	62.008	-53,4	186.477	-46,1	3,01	2,60	-	-	-	-
Atzeritarrak	6.176	-81,8	18.912	-77,9	3,06	2,51	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	11.076	-66,1	30.220	-59,1	2,73	2,26	11,5	-9,3	14,9	-8,1
Estatukoak	10.694	-62,4	29.553	-54,6	2,76	2,29	-	-	-	-
Atzeritarrak	382	-91,0	667	-92,4	1,75	2,06	-	-	-	-
BIZKAIA	18.782	-63,8	57.089	-57,1	3,04	2,57	18,0	-11,5	22,5	-10,7
Estatukoak	17.294	-56,6	52.909	-48,7	3,06	2,59	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.488	-87,6	4.180	-86,1	2,81	2,50	-	-	-	-
GIPUZKOA	38.326	-53,6	118.080	-47,5	3,08	2,72	22,1	-9,8	26,5	-9,6
Estatukoak	34.020	-47,5	104.015	-41,5	3,06	2,75	-	-	-	-
Atzeritarrak	4.306	-75,8	14.065	-69,9	3,27	2,63	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urtearekiko ehuneko-puntu aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Sarrerak % 66,1 murriztu dira Araban, % 63,8 Bizkaian eta % 53,6 Gipuzkoan. Ostatueta igarotako gauei dagokienez, beherakada % 59,1ekoa izan da Araban, % 57,1ekoa Bizkaian eta % 47,5ekoa Gipuzkoan. Hotel-establezimenduen kasuan gertatu den bezala, atzeritik datozen pertsonen sarrerak eta horiek ostatueta igarotako gauak izan dira jaitsiera handienak izan dituztenak, 2019. urtearekin alderatuta, % 81,8ko eta % 77,9ko beherakadekin, hurrenez hurren, Euskal AE osoan.

Sarrera bakoitzeko batez besteko egonaldiak gora egin du 2020an, 2019an batez besteko egonaldia 2,58 egunekoa izatetik 2020an 3,01 egunekoa izatera igaro baita. Igoera hori hiru lurralde historikoetan ikusi da (2,26 egunetik 2,73 egunera Araban, 2,57 egunetik 3,04 egunera Bizkaian eta 2,72 egunetik 3,08 egunera Gipuzkoan, 2020an).

Eskainitako plazen okupazio-maila ehuneko 10,2 puntu jaitsi da, eta eskainitako logelei dagokiena, 9,5 puntu. Beherakadak orokorrak izan dira hiru lurralde historikoetan.

Itxita mantendu diren landetxeak (%). COVID19 aldia

	EUSKAL A.E.		ARABA/ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019
Abendua	30,7	15,6	27,4	11,8	37,4	20,9	28,0	14,1
Azaroa	28,6	13,5	25,5	6,9	35,9	20,2	25,5	12,6
Urria	18,0	10,0	16,0	4,9	19,2	12,4	18,2	11,0
Iraila	15,4	8,1	11,4	6,9	17,7	9,4	16,0	7,9
Abuztua	16,1	8,1	11,4	5,9	18,6	9,4	17,0	8,4
Uztaila	18,6	8,3	16,2	5,9	21,4	8,7	17,9	9,4
Ekaina	33,4	11,4	35,2	6,9	32,6	12,6	33,0	13,1
Maiatza	60,9	12,1	71,4	6,8	57,8	14,1	57,2	13,6
Apirila	92,7	11,6	97,1	6,8	91,4	12,5	91,2	13,6
Martxoa	23,1	17,5	15,2	10,9	27,1	18,1	24,7	20,5

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2020. urtea landa-establezimenduen % 30,7 itxita zeudela amaitu da. Aurreko urteko hilabete berean % 15,6 zeuden itxita. Aipatu behar da horrelako ostatueta establezimendu asko irekita egon direla, baina ez dutela inolako mugimendurik izan, mugikortasun-murrizketengatik eta talde bakoitzeko baimendutako pertsona-kopuruaren mugengatik.

Landetxeak: 2020ko abendua

2020ko abenduan 963 bidaiari sartu dira Euskal AEko landetxeetan, aurreko urteko hilabete berean baino % 91,2 gutxiago. Lurraldeka, Araban sarrera kopurua % 94,1 jaitsi da, Bizkaian % 93,2 eta Gipuzkoan % 88,2. Sarrerek behera egin dute, bai estatu-jatorriko sarrerek behera egin dutelako (-% 91,2), bai atzeritik etorritako sarrerek behera egin dutelako ere (-% 91,1).

Euskal AEko landetxeetako sarrerek, gualdiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak. 2020ko Abendua

	Sarrerek		Gualdiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2020/12	m/m-12 (%)	2020/12	m/m-12 (%)	2020/12	2019/12	plazaka		gelaka	
							2020/12	p.p.*	2020/12	p.p.*
EUSKAL AE	963	-91,2	2.950	-88,6	3,06	2,37	2,8	-18,5	4,4	-18,5
Estatukoak	885	-91,2	2.768	-88,5	3,13	2,40	-	-	-	-
Atzeritarrak	78	-91,1	182	-89,7	2,33	2,00	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	141	-94,1	515	-90,0	3,65	2,14	2,0	-15,7	3,3	-15,0
Estatukoak	139	-94,1	513	-89,8	3,69	2,15	-	-	-	-
Atzeritarrak	2	-95,1	2	-97,6	1,00	2,07	-	-	-	-
BIZKAIA	252	-93,2	814	-89,5	3,23	2,09	2,9	-19,2	5,1	-19,6
Estatukoak	195	-94,2	698	-90,2	3,58	2,12	-	-	-	-
Atzeritarrak	57	-84,5	116	-82,0	2,04	1,76	-	-	-	-
GIPUZKOA	570	-88,2	1.621	-87,6	2,84	2,71	3,2	-19,6	4,5	-19,5
Estatukoak	551	-87,3	1.557	-87,0	2,83	2,76	-	-	-	-
Atzeritarrak	19	-96,0	64	-93,8	3,37	2,19	-	-	-	-

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2020ko abenduan ostatueta igarotako 2.950 gau zenbatu dira Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimendu eta landetxeetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 88,6 gutxiago. Lurraldeka, Araban % 90 jaitsi dira, Bizkaian % 89,5 eta Gipuzkoan % 87,6.

Plazen arabera okupazio-maila % 2,8ra mugatu da, 2019ko abenduan ikusitakoa baino 18,5 puntu txikiagoa. Araban, % 15,7 egin du behera, eta % 2,0koa izan da. Bizkaian 19,2 puntu egin du behera, eta Gipuzkoan 19,6 puntu. Azken bi probintzia horietan plazen okupazio-maila % 2,9koa eta % 3,2koa izan da, hurrenez hurren.

Oharra. Eustatek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginarengatik, are gehiago gaur egungo egoera oso zaila dela kontuan izanda. Horiei esker zabaldu ahal izan da COVID19ari aurre egiteko hartutako neurriek sektorean dituzten ondorioak kuantifikatzeko aukera ematen duen informazio hau.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62